

Elkarriren VII. Batzar Nagusia
Oinarrizko txostenaren 2. dokumentua

Elkarriren Jarduera Plangintza 2003-2005rako

Zubi berri bat eraiki
Construir un nuevo puente

2003ko martxoaren 1a

Bigarren zatia Elkarriren oinarriak eta zeregina

Azken bi urtetako balantzea egiteaz eta egungo egoera aztertzeaz gain, Elkarriren lana antolatu behar duen txosten batek lekua eskaini behar dio bi gai garrantzitsu bilduko dituen beste gogoeta bati. Lehen-lehenik, koiunturak alde batera utzita, gizarte mugimendu honek lan egiteko aintzat hartzen dituen oinarriak aztertzea. Bestetik, premisa teoriko horien eta diagnostikoaren arabera, Elkarriri dagokion zeregina jarduera plangintza berria indarrean egongo den epean. Hori guztia esku-hartze egitasmoa finkatzeko gogoeta eta analisi euskarria izango da. Bigarren zati honen egiturak bi atal ditu:

1. Gizarte mugimendu honen oinarriak.
2. Elkarriren zeregina 2003-2005 epean.

1. Gizarte mugimendu honen oinarriak

Ebaluazio iraunkorra eta egoeraren diagnostikoa Elkarriren jarduera eraikitzeko zoru sendoa baldin badira, oinarriak dira bere lehen zimendua. Gure gizarte mugimenduaren premisa teoriko hauek bost ataletan aurkeztuko ditugu. Tailer Nazionalak 2001eko irailean Bake Konferentziaren proiektuarekin batera aurkeztu zuen PAS3aren oinarrien atala hartzen dugu erreferentzi gisa.

1.1. Analisia

Oinarrien lehen atal honek lotura zuzena du dauzkagun arazoak ulertu eta aztertzeko moduarekin.

1.1.1. Hiru arazo nagusiak eta bere definizioa

Hiru arazo nagusik astintzen dute euskal gizartea azkeneko hamarkada hauetan: indarkeriak, gatazka politikoa eta erantzun ez-demokratikoak. Batetik, antolatutako indarkeria mota bat (gaur egun ETAk burutzen duena) pertsonen bizitzaren aurka behin eta berriz erasotzen duena; bestetik, bizikidetasun politiko ereduarekin loturiko halako etendura sakon eta luzeak; eta azkenik, indarkeriari eta arazo politikoari erantzuteko Estatutik ematen diren erantzun ez-demokratikoak. Analisi hau bat dator gizartearen gehiengoaren ustearen adierazpen eta isladarekin.

-Indarkeria. Gizartearen gehiengoak biziki gaitzesten duena, babesten edo justifikatzen dutenek honela definitzen dute: «Euskal Herriaren eskubide nazionalak babesteko eta eskuratzeko borroka armatu legitimo» gisara. Frankismoaren garaietatik datorren fenomeno hori ulertzeko faktore asko azertu beharra legoke (historiko, biografiko, politiko, sozial edo kulturalak). Gaur egun, eta gizartearen gehiengoaren ustearrekin bat eginez, ezer baino lehen, indarkeria –eta giza eskubideen beste edozein urraketa babestea bere jatorriari begiratu gabe– ideia batzuen defentsari eginiko atxikipen itsua da, gizatasun espirituz hustua, bitarteko anker eta bidegabekoak erabiltzea dakarrena. Mila hildakotik gora eta une oro bizkartzainak eraman behar izaten dituzten herritar mehatxatu asko eragin ditu indarkeria horrek azken hiru hamarkadotan; eta beste indarkeria mota batzuk ere ezin ditugu ahantzi. Horixe dugu arazoaren ondorioz zuzenena eta bere adierazpen dramatiko eta itzulerarik gabekoa. ETaren indarkeria gatazka politikoaren ondorioa den ala soilik intolerantzia adierazpen larrienetakoa ote den eztabaidaren aurrean hauxe baieztatzen dugu: ETaren indarkeria, besteak beste, konpondu gabeko gatazka politiko batez elikatzen den, intolerantzia adierazpen larrienetako bat dela.

-Arazo politikoa. Bizikidetasun politikoa gauzatzeko oinarritzko egituren inguruko (esparru politikoa, lurralde antolakuntza, erabaki eta bujabetza esparruak, kultur nortasunak edo norberaren nazio-atxikimendu sentimenduak, besteak beste) desadostasun sakonak dira haren adierazle aipagarrienak. Argitu dezagun zera: indarkeria ez da arazo politikoaren «berezko» ondorioa. Kontzienteki bake-bidezko bitartekoen bidez jokatzeko bazterrerara utzi duen jende eta taldeen erabakia da, batez ere. Arazo politikoaren funtsean dago, aitzitik, egungo konstituzio eta estatutu markoak ez duela adostasun soziopolitiko desiragarriarik. Populazioaren sektore zabalek –gehiengoa dutena EAEn eta oso esanguratsuak direnak Nafarroan– egungo markoarekiko desadostasun nabarmenak daukate. Horrez gain, duela 25 urtetik hona, botoen %15a inguruk egungo ordenamendu juridiko-politikoaren erabat arbuiatzen du, inposatua dela uste duelako.

-Erantzun ez-demokratikoak. Trantsiziotik gaur egun arte, Estatuak zenbaitetan amore eman izan du ETaren indarkeriaren gertakariari zein arazo politikoari metodo ez-demokratikoekin erantzuteko tentazioaren aurrean. GAL, tortura edo dispersioa dira hauetako adibiderik larrienak eta gizatasun gutxienekoak. Orain, horri guztiari, lau zutabetan oinarritutako «desdemokratizazio legala»ren forma berri bat gehitu beharko litzaioke: (1) botere exekutibo, legegile, judizial, mediatiko eta ekonomikoaren kontrol monolitikoa, (2) legeen interpretazio berria, (3) ad hoc lege berrien sorrera eta (4)

erreforma penalak. «Terrorismoaren aurka guztiak balio du» premisan oinarritutako estrategiak botere-banaketa, pluralismoa, berdintasuna legearen aurrean, askatasun ideologikoa, adierazpen-, manifestazio-, elkartze-askatasuna edo alderdi politikoak eratzeko askatasuna bezain printzipio eta askatasun oinarrikoak urratzen ari da. Ofentsiba honek berez errugabetasun-presuntzioa baliogabetzen du, presoaldi prebentiboa zabaltzen du, behin-behineko askatasuna indargabetzen du, bergizarteratzea ezabatzen du zigorraren amaiera gisa, birgizarteratzea deuseztatzen du eta biziarteko kartzela-zigorra berriro ezartzen du. Sistema demokratiko baten berme eta askatasunen atalez ataleko deuseztapen baten aurrean gaude. Gure gizartearen gehiengoa atzerakada demokratikoa honen aurka dago. Indarkeria zein arazo politikoa printzipio, prozedura eta politika demokratikoen arabera konpondu behar dira.

1.1.2. Indarkeria eta arazo politikoa elkarrekin ez nahasteko zazpi irizpide

Gai eztabaidatsua da indarkeriaren eta arazo politikoen arteko harremana, hainbat ñabardura eskatzen dituen. Arazoa ez dator bien arteko harremana aztertzetik, bi kontzeptu horiek nahastetik eta maltzurki elkarlotzetik baizik. Bide okerretik dabilta bai indarkeria konpondu gabeko arazo politikoa baten emaitza dela diotenak bai arazo politikoekin inongo loturarik ez duela esaten dutenak. Ez dago biak elkarrekin bat egiterik, ezta elkarrekin batere loturarik ez dutela esaterik ere. Honako hau dugu politikaren eta gizartearen eginkizun nagusietakoa: indarkeriaren aurrean politikak daukan nagusitasun etiko eta demokratikoa gauzatzeko eta martxan jartzen duen adostasuna aurkitzea. Gaur egun parteka ditzakegun printzipio eta araubide demokratikoen inguruko adostasuna bide egokia litzateke hori lortzeko. Indarkeriaren eta politikaren arteko harremana, edo bakearen eta normalizazioaren artekoa, bere jarduera plangintzarako Elkarrik kontuan hartu dituen irizpide hauen arabera azter daiteke.

-Lehenengo. Indarkeriarik eza eta giza eskubideak erabat aintzat hartzea, horiek dira premia eta lehentasun nagusiak gizarte, politika eta etikaren ikuspegitik.

-Bigarren. Ez dira elkarrekin nahastu behar indarkeriaren amaiera eta normalizazio politikoa, ezta elkar neutralizatu edo bata bestea kontuan hartu gabe kudeatu behar ere.

-Hirugarren. Bakea eta normalizazioa ez dira elkarri bizkarra emanda dabiltzan prozesuak; badute elkarreragin nabarmenik: (a) indarkeriaren akabera lagungarri gertatuko litzateke auzi politikoak konpontzeko; (b) normalizazioari buruzko alderdien arteko elkarriketa, denen artean adostutako arauak erabiliz, indarkeria amaiarazteko mesedegarri izango litzateke. Bektore alderantzikatuak dira indarkeria eta normalizazioa: batek aurrera egiten badu besteari atzeraka eragiten dio; eta alderantziz.

-Laugarren. Indarkeriarik dagoen bitartean ez dago itun edo konpromiso politikorik hitzartzerik hura politikagintzarako tresna gisara erabiltzen dutenekin.

-Bosgarren. Elkarriketa beharrezkoa da indarkeria egon arren elkarriketa politikorik gabe ez dagoelako aurkitzerik edo jorratzerik denok onartzeko moduko konponbiderako biderik ezta eszenategirik ere.

-Seigarren. Bake-prozesua ez dago lotzerik proiektu politiko-estrategiko jakin bati; indarkeriarik ezari, elkarriketari, adostasunari eta printzipio demokratikoei uztartu behar zaie.

-Zazpigarren. Normalizazio prozesuaren ardatza ez da eduki politikoa izan behar, arazo politikoak gainditzeko metodologia demokratikoari buruzko akordioa baizik, gizartea eta horren aniztasuna kontuan hartzen dituenak.

1.2. Elkarriren motibazioak eta helburuak

Mesfidantza, aurreiritzi morala eta «besteen» benetazko helburuen inguruko asmoen judizioa nagusitzen ari diren honetan, Elkarririk, hamar urte eta gero, egoeren eta gertaeren gainetik mantendu dituen helburuen berri eman dezake eta eman behar du. Oinarri hauek Elkarririk osatzen dugunok konpartitzen ditugun helburu sakonak adierazten dituzte. Gizarte mugimendu honen jarduera sostengatzen duen pertseberantziaren oinarria ere badira.

1.2.1. Motibazioak

Indarkeria eta eraso estrategien zein desadostasun politikoen ondoriozko larriena hain modu anker, gogor eta konponezinean pairatzen dituzten herritar zein familia askoren sufrimendua eta bizitzaren aurkako atentatuak dira. Horregatik, Elkarriren motibazioak sendoena, bere jardura osoari dagokionez, bi ideia hauetan laburbil daitezke:

-Sufrimenduaren eta hau eragiten duen giza eskubideen aurkako indarkeriaren amaiera.

-Sufrimendua pairatzen duten biktima guztiekiko elkartasun aktiboa.

1.2.2. Helburuak

Elkarriren ekimena hasiera hasieratik indarkeriaren eta zatiketa politikoen errealitate bidegabea eraldatzen laguntzen oinarritu da. Elkarriren existentzia argitzen duen azken arrazoi eta helburua bikoitza da:

-Bakea gure herriarentzat.

-Bizikidetasun normalizatua askatasunean, berdintasunean, aniztasunean eta oinarrizko adostasunean.

1.3. Printzipio gidariak

Gizarte mugimendu honen ibilbidea, oraina eta etorkizunari proiektzioa lau printzipio gidarien arabera zehazten da.

1.3.1. Giza eskubideak eta indarkeriarik eza

Printzipio hau giza duintasunarekiko eta bizitzaren eskubidearekiko konpromiso absolutu eta etikoa bezala ulertu behar da. Bere baitan hartzen du pertsona guztien eskubideen defentsa deberdintasunik gabe, edozein delarik pentsatzen duena, askatasunean edota askatasunik gabe egonagatik ere. Eta honek esan nahi du baita giza eskubide ororen defentsa eta oinarrizko askatasunena ere, bai norbanakoak zein taldekoak izanik.

1.3.2. Berdintasuna eta bazterketarik eza

Berdintasunaren printzipioa aurrera eramateak lehenik eta behin bazterketarik eza esan nahi du, bai mehatxuari dagokionez, bai ilegalizazioari dagokionez. Gure gizartean dauden aurkera politiko guztiek baldintza politiko demokratiko berdinak izan behar dituzte askatasunean hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko, euren egitasmoak defenditzeko eta, hala izanik, egitasmo hauek gauzatzeko.

1.3.3. Elkarrizketa eta akordio aldean

Aniztasunarekin lotura duen printzipioa da. Aldebakartasunik gabeko irtenbiderako prozesu elkarrizketatuak sustatzeko konpromisoa esan nahi du. Hots, adostasun anitzak bilatu nahi ditu, beti ere tradizio politikoen bateratze nahikoa atxikituz. Elkarrizketa eta aniztasunaren arteko lotura zuzena da, elkarrizketak bestea zintzotasunez aintzat hartzea eta onartzea esan nahi baitu.

1.3.4. Arau demokratikoak eta erabakitze askatasuna

Legedia aldaezina ez delako ageriko onarpena adierazi nahi du arau demokratikoekin lotura duen printzipio honek. Konponbideen prozesu batean erabakitze askatasunerako guneak sustatzea esan nahi du, mugarik gabe, eta adostasun nahikorekin, gizartearen gehiengoaren nahiaren adierazpena den heinean.

1.4. Metodoa

Elkarriren historia hasieratik bukaerara gatazkak gainditzeko momentuan metodo demokratikoa, gizakoa eta eraginkorra den elkarrizketaren aldekoa da, bereizketa politiko handiak eta indarkeria gauzatzen den gizarteetan baliagarria dena bereziki. Hala eta guztiz ere, oinarriak azaltzen ditugun atal honetan iritzi hau berresteaz gandi, gizarte mugimendu honek metodo honen aldeko argudioak aurkeztea egokia ikusten du, metodo honetan sinesten ez dutenen aurrean batipat, Elkarrik elkarrizketaren aldeko duen atxikimendua azaltzen duten arrazoietan sakonduz.

1.4.1. Eragozpenak eta erantzunak

Elkarrizketari jartzen zaizkion eragozpenak, kontrako posizioetatik aldi berean erabiltzen diren eta hain justu kontrako adierazpenean erantzuna aurkitzen duten, lau argudioetan laburbil daitezke.

Aldeko argudioak	Kontrako argudioak
«Elkarrizketaren proposamena faltsua da»	«Elkarrizketaren proposamena egiazkoa da»
(Mesfidantzaren, aurreiritzien edo bestelako intentzioen inguruko iritzien argudioa)	Elkarrizketaren apustuaren benetakotasuna printzipioen irmotasunarekin, jarrerren gardentasunarekin eta bitartekoen malgutasunarekin frogatzen da.
«Elkarrizketaren proposamena kaltegarria da»	«Elkarrizketaren proposamena eraikitzailea da»
(a) ahulezia-seinaletzat hartzen da elkarrizketari ekitea.	(a) elkarrizketa baztertzeak ahulezia eta iritzien kontrasteari beldurra adierazten du.
(b) indarkeria erabiltzen jarraitzea bultzatzen du indarkeriazalea, etekinik ematen diola ohartua baita.	(b) elkarrizketari atea ixteak indarkeria erabiltzen jarraitzea bultzatzen du indarkeriazalea, bere jokabidea justifikaturik dagoela uste baitu.
«Elkarrizketaren proposamena inozoen kontua da»	«Elkarrizketaren proposamena bene-benetakoa da»
(a eta b) boluntarismoan oinarritzen da elkarrizketaren defentsa.	(a) indarkeria-bidezko konponbiderik, edo (b) elkarrizketa gabekorik, badagoela uste izatea, hori da boluntarismoa.
«Elkarrizketaren proposamena alferrikakoa da»	«Elkarrizketaren proposamena baliagarria da»
(a) elkarrizketak ez du balio, ez baitago borondaterik; «borroka-bide guztiak» dira beharrezko.	(a) bidegabekoa izateaz gain, alferrikakoa da indarkeria. Ez da inolako alternatiba.
(b) ez dago bizikidetasun-hitzarmen hoberik lortzerik, sistematik kanpo daudenek edo indarkeria erabiltzen dutenek ez baitute aldatu nahi.	(b) elkarrizketari uko egiteak ez du egungo egoera aldatuko: «per secula seculorum» luzatuko du.
	(a y b) elkarrizketarik gabe ez dago jakiterik «besteen» borondate, interes eta egoeretan ba ote dagoen maniobratze-aukerarik.

1.4.2. Elkarrirerabat elkarrizketaren alde jarduteko uste sendo bat

Eztabaida hauek baino lehenagokoa den uste sendo batetik dator Elkarrik elkarrizketarekin duen konpromiso tinkoa, eta komeniko litzateke horri buruzko argibide batzuk ematea:

-Gizakion alderdirik hoberenak martxan jartzeko benetako bideak jartzea da elkarrizketa Zorigaitza, indarkeria, zatiketa edo ankerkeria ez dira ahalguztidunak, ez dute ez norbanakoen ez giza taldeen jokabidea goitik behera mugatzen, ezta egoerarik txarrean ere. Hala balitz, ez zegokeen gizadiaren aurrerakuntzak gauzaterik. Hona

hemen Elkarrik elkarrizketan sinesteko arrazoia: elkartasunak, adiskidetze-nahiak, enpatiak edo gizatasunak ere badute lekuri (txikia bada ere) gizakion jokabideetan. Indarkeria eta enfrentamendu-egoerak aldatzeko tresna da elkarrizketa, aukera ematen baitu gizakion alderdirik hoberena (hori ere bai baitaukagu) abian jartzeko eta elkarrekin harremanetan hasteko; aukera ematen du interes guztiak kontuan hartzeko moduko egoerak sortzeko edo aurkitzeko. «Ezin litekeena» «litekeena» bihurtzeko itxaropena gauzatzeko benetako urratsak ematea, horra zer den elkarrizketa. Elkarrizketa «bestea» solaskide gisa onartzean eta interdependentzian oinarritzen da. Bazterketak gatazkaren eskalada batera garamatza eta konponbideak bilatzea galarazten du.

1.5. Ondorio bat: lehentasunak

Azterketa, motibazioak, helburuak, printzipio gidariak eta metodoa azaltzeaz gain, *Oinarriak* aurkezten ditugun atal honetan Elkarrik irtenbideetan eta bake prozesu batean gizarte mugimendu honentzat lehentasunak direnak azaldu behar ditu. Azken buruan, lehentasun hauek Elkarriren oinarri eta zimendu guztiak gure hurbileko esperientziarekin, gaur egungo egoerarekin eta etorkizuneko egitasmoarekin elkar lotzen dituzte.

1.5.1. Premiazkoa: bizitza eskubidea

Bizitzaren aurkako atentatuak etetea da gure gizartearen lehentasunik garrantzitsuena. Lehentasun hau sostengatzen duten argudioak itzelak eta zuzenak dira. Arrazoiak etikoak eta moralak dira, sozialak eta politikoak, demokratikoak eta baita eraginkortasunekoak ere. Gizarte honek ez du indarkeriaren aldeko hauturik onartzen, eta heldutasunez aurre egin nahi die dituen arazoei, modu baketsuan, politikaren bidez eta demokratikoki. Gure gizarteak gogotsuen babesten duen eskaria indarkeriaren bukaera da, elkarrizketaren behararekin batera. Larria eta premia da.

1.5.2. Garrantzitsua: elkarrenganako bermeak dituen akordioetarako eta adostasunetarako elkarrizketa

Bigarren lehentasunak garrantzitsua denarekin zerikusia du, gure barneko zein Estatuarekiko harremanak adiskidetu dituen bizikidetasunerako marko bat bilatzearekin alegia. Helburu hau lortzeko lehentasuna bazterketarik gabeko elkarrizketa guneak sortzea da, akordio eta adostasun aldeanitzak lortuz, betiere gure gizartearen gehiengoak hartutako erabakiekiko begirunea izanik, eta aldi berean aniztasunaren berme eraginkorarekin uztartuz. Beste modu batera esanda, bi gauzetan ados jarriko gaituen joko baten arauak eta bermeak zehaztu behar ditugu: (1) gehiengoaren babesa duen edonolako nahikariak bide demokratikoak aurkituko ditu hau gauzatu ahal izateko eta (2) bi tradizio politiko handien eskubideak –gehiengoan zein gutxiengoan egonik– bermatuak izango dira bi tradizioei dagokien oinarritzko adostasun bati erantzunez.

1.5.3. Beharrezkoa: indarkeriarik eza, bazterketarik eza, aldebakartasunik eza eta betorik eza ere

Nahikoa izan ez arren, erabat beharrezkoa dena azaltzen du hirugarren lehentasunak. Beharrezkoa bake-prozesu baterako eta beharrezkoa ere duen garrantziagatik. Blokeatzen eta mesfidantza sortzen duten faktoreen gain eragin behar du bake eta konponbide-prozesu batek: indarkeria, bazterketa, aldebakartasuna eta betoa. Egoera aldarazteko desblokeo-baldintzak sortzea lehentasunetako bat da. Mehatxuak eta indarkeria desagertzea, gizatiartzea eta giza eskubideekiko errespetua ezinbestekoak dira. Halaber, beharrezkoa da mehatxuak zein ilegalizazioak dakarten bazterketa ekiditzea. Bide berdinean, irtenbideak eta behin betiko bake-prozesu bat gauzatzeko ezinbestekoa da aldebakartasunik eta betorik gabeko konpromisoak erdiestea. Hartara, modu honetan, beharrezkoak eta lehentasunezkoak diren lan egiteko lau ildo zehazten dira.

2. Elkarriren zeregina 2003-2005 urteen bitarterako

Oinarritzko txostenaren lehenengo dokumentuan Elkarriren hamarkada bateko historiaren balantzearen ondorioak nabarmendu ditugu, Bake Konferentziaren harian bi urtez egindakoa zehazkiago esanez. Bigarren dokumentu honetan, bere lehen zatian, egoeraren azterketari dagozkion ondorioak zehaztu ditugu. Aurreko atalean, Elkarriren oinarriak eta zimenduak bergogoratu ditugu eta ondorio bezala hiru lehentasun agertu ditugu. Dokumentu honen hirugarren zatian Elkarriren jarduera-egitasmoari ekingo diogu. Urrats berri honetan «nola», edota «zein lan plangintzarekin» aurrera egingo dugun galderari erantzuten ahaleginduko gara. Aitzitik, aurretik, gauden puntuan gaudela, «zer egin behar dugun» edota «2003-2005 urteen bitartean gure zeregina zein den» erantzun behar dugu. Hamarkada osoko balantzearen atal desberdinen, Bake Konferentziaren, egoeraren azterketaren eta Elkarriren oinarrien ondorioak laburtuz galdera hau erantzuten saiatuko gara.

2.1. Elkarriren zeregina hamarkada osoko ibilbidearen balantzearen haritik

Gure ibilbidea aztertu eta gero, hamarkada osoko gure historia lau etapatan egituratzera eraman gaitu: Lehendabizikoa (92-94), «Oinarriak jarri»; Bigarrena (94-96), «Egitasmoa zimendu»; Hirugarrena (96-98), «Bere baliogarritasuna frogatu»; Laugarrena (98-00), «Jarrerak prestatu»; eta Bosgarrena (00-02), «Metodoa zehaztu». 2003. urtean Elkarrik bere seigarren etapari ekingo dio bi urtetarako egitasmo berri batekin. Gizarte mugimendu honek sasoi berri hau definitzeko aukera izango balu, «Konponbideen eta sintesien prozesuari ekin» moduko ideia aukeratuko luke. Erabaki hau ezinezkoa izan arren, zilegizkoa zaigu gure etorkizuneko nahia irudikatzea.

-Helburua. 2003-2005 urteen bitartean Elkarriren zeregina bere bidean jarraituz hamar urte hauetan metatu eta ikasitako guztia laburtzea, zehaztea eta indarrean jartzea da bere egitasmoa bukatu eta irtenbideak bilatzeko prozesua abiarazteko.

2.2. Bake Konferentziaren ebaluazioaren arabera Elkarriren zeregina

2000. urteko udan Zubigintzan Plan Estrategikoa onartu zenetik, Elkarriren zeregina ia kasik Bake Konferentziaren prozesura mugatu da. Honexegatik, azken bi urteotako Elkarriren lana ebaluatzeak, prozesu hau bera ebaluatzea esan nahi du. Prozesu honetatik ateratako ondorioek ideia nagusi bat nabarmendu zuten, eta etorkizun hurbilean islaturik egonagatik, gizarte mugimendu honek sasoi berrirako duen zereginaren parte izatera igarotzen da.

-Egitasmoa. Azken bi urteotan aurrera eramandako lanaren ebaluazioaren arabera 2003-2005 urteetarako Elkarriren zeregina beste behin saiatzea da eta bake-prozesu erabakitzaile baten inguruko egitasmoa bultzatzea, zeinaren abiapuntua Bake Konferentziaren ondorioak eta Bake-bidea konpromisoa diren.

2.3. Egoeraren azterketaren arabera Elkarriren zeregina

Egoeraren azterketaren irakurketak oso modu argian zehazten du 2003-2005 urteen bitarterako Elkarriren zeregina. Immobilismoaren (liskarrerako joerarekin) eta aldaketaren aldeko indarren arteko leihak momentu honetan blokeoaren alde egiten du. Testuinguru honetan, indarkeriaren eta gatazkaren errealitate honetan eragina duen eremu guztietan desblokeoaren aldeko hautua indartzea da Elkarriren zeregina.

-**Oinarria.** Egoeraren azterketaren ondorioen arabera 2003-2005 urteen bitarteko Elkarriren zeregina aldaketa prozesu baten alde indarkeriarik ezaren eta elkarrizketaren bidetik gizararen, alderdi politikoen eta nazioarteko erakundeen indarrak biltzea eta metatzea da, eta gatazkaren inertziei probetxu0, ateratzeko modu eraikitzaileak bilatu, hauek modu positiboan berbideratzeko.

2.4. Oinarrien eta zimenduen arabera Elkarriren zeregina

Elkarriren oinarriak azaltzen dituen atalak, besteak bestek, gizarte mugimendu honen azken helburuak zehaztu ditu. Sorreratik bertatik zehaztuta zeuden helburu hauekiko ikuspegi progresibo batek gizarte mugimendu honen zereginaren hiru ageriko lehentasun finkatzera laguntzen du. Modu honetan, lehentasun hauek beste modu batean Elkarriren zeregina edukiz betetzen dute.

-**Lehentasuna.** 2003-2005 urteen bitarteko oinarrien eta zimenduen arabera Elkarriren zereginak bizitzaren eskubidearen babesa, indar politiko guztientzat elkarrenganako bermeak dituen bazterketarik gabeko elkarrizketa guneak sortzea eta indarkeriarik, bazterketarik, aldebakartasunik eta betorik gabeko baldintzak sustatzea izan behar du oinarritzat.

2.5. Elkarriren zereginaren laburpena

Gizarte mugimendua den heinean, 2003-2005 bitarteko Elkarriren zeregina honakoan datza:

- A.** Hamar urtez metatutako esperientziatik ikasi eta Bake Konferentziaren ondorioetan eta Bake-bidea proposamenaren edukietan oinarritutako bake-prozesu erabakitzaile bat abiarazi.
- B.** Bizitzaren eskubidearen defentsan lehentasunak finkatu, hala nola bazterketarik gabeko alderdien artean bermeak izango dituen elkarrizketa guneak sortu, indarkeriarik, bazterketarik, aldebakartasunik eta betorik gabeko baldintzak gauzatu.
- C.** Egitasmo hau lagunduko duten gizararen, politikarien eta nazioarteko erakundeen indarrak pilatu oinarritzko printzipioak babes ditzaten.

Hau guztia esaldi bakarrean laburbildu behar izatekotan, «Zubi berri bat eraiki» litzateke Elkarriren zeregina islatuko lukeen ideia.